

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

| GIPUZKOAN                    |                      | NAFARROAN              |             |
|------------------------------|----------------------|------------------------|-------------|
| 14 positibo berri            | 1.622 hildakoak EAEn | 17 positibo berri      | 528 hildako |
| 21.692 positibo guztira*     | X UCIn EAEn          | 5.606 positibo guztira |             |
| *Hernanin 68 Astigarragan 24 |                      | Sendatuak EAEn:4.386   |             |

## Hiru eguneko bizikleta itzulia antolatu du Sarek, eta datorren ostegunean pasako da Txantxilla auzotik

Euskal preso eta iheslarien aldeko hiru eguneko ekimena antolatu du Sarek, datorren ostegunean hasita. «Uztailaren 25ean antolatu dugun azken etapa Euskal Herriko espetxeetatik irten eta gure herriko hiriburuetan amaituko dugu, etxean».

### HERNANI PRESOK

Uztailaren 23an, 24ean eta 25ean izango da aurtengo bizikleta itzulia, Sarek antolatzen duen hirugarrena. Aurtengoa ordea, «edizio berezia izango da», adierazi dute Joxean Barandiaran eta Ixiar Arteaga Sareko kideek. Izan ere, COVID-19a dela eta zenbait oztoporri egin behar izan diete aurre itzulia presatazako, eta segurtasun neurri bereziak ere hartu behar izan dituzte.

**Lekunberritik Hernanira, Nafarroa eta Gipuzkoa batuz** 2020ko bizikleta itzulia hiru egunetan egingo diren etapa ezberdinek osatuko dute. Ostegunean pasako da Hernanitik, Lekunberritik hasitako martxa. Bertatik 09:00etan abiatuko

dira, eta Hernanira 12:30ak aldera iritxiko dira, Txantxillara. Ostiraleko etapa Urduñatik Durangorako martxa izango da, Araba eta Bizkaia lotuz. Eta azkenik, larunbatean lau etapa egingo dituzte, Euskal Herriaren dauden lau espetxeetatik hiriburuetarara: Zaballa-Gasteiz, Basauri-Bilbo, Iruñeko espetxea eta Martutene-Donostia.

### «Aurtengoa bereziki urte gogorra izaten ari da»

Sareko kideek adierazi dute aurtengoa urtea zaila izaten ari dela, «bai senide eta baita preso dauden Euskal Herriarrentzat ere». Koronabirusa dela eta hiru hilabete igaro behar izan dituzte senideek bisitarik gabe.

Senide eta presoek ez dute elkar ikusteko aukerik izan, pandemia garaian. «Hiru hilabete



Sareko kideak, Andoainen bildu ziren astelehenean, bizikleta itzuliaren aurkezpena egiteko.

luze izan dira, zeinetan haurrek ezin izan duten euren gurasoekin bisitarik izan», esan dute.

Gainera, astebururo 28.047km egiten dituzte guztira senide eta lagunek, eskualde osoan. Hernanitik, esaterako, 18.177km egiten dituzte. Eta 13 motxildun haur daude, 3.540km egiten

dituztenak.

Hala ere, «sufirimenduzko egoera hau pairatzen 40 urte daramatze, eta COVID-19ak are ageriagoan utzi du politika honek dakartzan oztopoak eta sufrimendua euskal presoak euren bizilekutik gertu egotearen beharra», gehitu nahi izan dute.

Horregatik, maiatzean aurkeztu zuten Izan Bidea ekimenaren baitan antolatu dute ekimena: «preso eta iheslarien etxerako bidea eta euskal jendartearen elkarbizitzarako eta bakerako bidea egiten jarraitu nahi dugulako», zehaztu dute Sareko kideek. **K**

## Haritzaldi Naturzaleak Elkaratearen laguntzarekin, landare inbaditzaileak auzolanean kenduko dira gaur

Andre Gobadarien parkeko landare txarrak kenduko dituzte auzolanean, gaur arratsaldean. Plaza mugatuak izango dira, parte hartzeko.

### ASTIGARRAGA INGURUMENA

Landare inbaditzaileak azaldu ziren Astigarragako Andre Gobadarien parkean, ibaiaren ondoan. Horregatik, Haritzaldi Naturzaleak Elkaratearen laguntzarekin ekimena antolatu du Udalak, landare horiek kentze-

ko. Auzolanean kenduko dituzte herritarrek.

### Parte hartzea

Plazak mugatuak direla adierazi dute antolatzaileek. Horregatik, «parte hartu nahi duenak aurrez izena eman behar du», adierazi dute. Izena emateko,

[naturzale@haritzalde.org](mailto:naturzale@haritzalde.org) helbidera idatzi edo 609420438 telefono zenbakira deitu behar da. Herritarrek gaur dute hitzordua, landare inbaditzaileak kentzeko. Arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitartean egingo dute auzolana.

Udalak ohar moduan jakinarazi du beharrezkoa izango dela norberak bere maskarilla eramatea. Gainera, segurtasun neurriak mantendu ahal izateko eskularruak banatuko zaizkie gerturatzen diren guztiei. **K**



Andre Gobadarien parkeko landare txarrak kenduko dituzte gaurkoan.

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

[www.kimerafisioterapia.com](http://www.kimerafisioterapia.com)

Hernani - Astigarraga - Donostia

**KIMERA**  
Fisioterapia - Osteopatia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko

**EGURALDIA GAUR** Giro motela izango dugu gaurkoan eta euri apur bat egingo du. Fronte hotz bat gerturatuko da eta horrek eguraldiak moteltzera eragingo du. **Min.16° / Max.20°**

**BIHAR** Eguna moteletik hasiko dugu eta goizean oraindik han-hemenka zirimiri apur bat egin dezake, baina arratsaldean hodei geruza saretu egingo da. **Min.16° / Max.20°**

**DOBERA EUSKARA ELKARTEA**

**LAGUNTZAILEAK**

**Hernaniko Udala**

**Astigarragako Udala**

**Dobera Euskara Elkarte**

**GOZUEKO UDALA**

**ARANOKO UDALA**

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

**EUSKO JARDUARREN GUBERNIO VASCO**

**Gipuzkoako Foru Aldundia**

**DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK**

## EH Bilduk boto gehien lortu zituen Hernanin, igandeko hauteskundeetan

4.219 boto lortu zituen alderdiak Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, eta 2016ko marka «aise gainditu» dutela adierazi dute.

**HERNANI EH BILDU**

Joan den igandeko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan EAJ-PNV irten zen garaile, baina EH Bildu bailara osoan nagusitu zen. Hernanin eta Astigarragan igoera haundia izan du: 4.129 (%49,04) eta 1.122 (%43,12) boto lortu zituen igandean, hurrenez hurren.

Pozik daude EH Bildukoak lortutako emaitzarekin. «Abs-

tentzioaren gorakada historikoa izan arren», 2016ko marka erraz gainditu dutela adierazi dute.

**Eskerrak, Iriarteren alde bozkatu duten herritar guztiei** Hernaniko EH Bildutik eskerrak eman nahi izan dizkiete Madalen Iriarteren eskaintza politikoaren alde bozkatu duten hernaniar guztiei. «EH Bilduren konfiantza jarri duzuen hernaniarrak gero eta gehiago

zarete». Zehazki, 2016an 4.000 ko langa horretatik gertu geratu zen alderdia, eta oraingoan duela 4 urte baino 152 boto gehiago eskuratu dituzte. «Abstentzioaren gorakada historikoa izan arren», emaitza positiboak lortu ditu EH Bilduk, jakitera eman dutenez. Izan ere, Hernanin nabarmen igo da abstentzioa: %10,5 puntu.

Diote, EAE gobernatzeko aukera «erreal» bat bihurtu direla. «Pixkanaka ari gara EAEko herritarren konfiantza gureganatzen eta mugimendu sozial guztiak beren lekua duten ezkerreko proiektu subiranista indartsu bat eratzen ari gara». **K**

## Mendi martxa antolatu du astebururako, Ernaik

Larunbat honetan presoan aldeko 'Izan bidea' dinamikaren harira, mendi martxa antolatu du Ernaik.

**HERNANI PRESOK**

«Izan bidea» dinamikarekin batera kilometroak egingo ditugu espetxeak hustu arte», adierazi dute Ernaiko kideek larunbateko ekimenaren harira.

**Bi deialdi larunbaterako, Gudarien plazan eta Bexabin** Antolatzaileek bi deialdi egin dituzte, larunbatean presoan alde egingo duten mendi mar-

txarako. Lehenengoa goizeko 09:00etan izango da, Gudarien plazan. «Bertan kotxeak antolatuko dira Bexabira igotzeko», jakinarazi dute. Kotxerik izan ezean, «etorri lasai, antolatuko gara», jakinarazi dute.

Bigarren deialdia 09:30etarako egin dute, Bexabin. Bertan bilduko dira ekimenean parte hartu nahi duten guztiak, eta guztiak batera egingo dute iguera. «Animatu zaitezke, azken(ak) bidea urratu arte!», esan dute antolatzaileek, komunikatuan. **K**

**«Gazteok ere bidea egitera goaz!»**



Pasa den asteburuan egin zen Bigarren Eskuko Azoka, Urbietan kalean.

## Hamaika objektu eta material, Bigarren Eskuko Azokan

**HERNANI AZOKA**

Pasa den asteburuan, Urbietan kalea hartu zuen Bigarren Eskuko Azokak, eta mota askotako produktu, material eta objektuak eskuratzeko aukera izan zuten herritar ugari. Covid-19aren eraginez ezarritako neurriak bete zituzten herritarrek, maskarilak jarriz eta distantziak mantenduz.

## Osteguneko azokako saltoki guztiak, Urbietan

**HERNANI AZOKA**

Bihartik aurrera, azokako postu guztiak Urbietan egongo direla jakinarazi du Udalak, eta bertan eskuragai egongo dira «jantziak, elikagaiak eta landareak». Hori dela eta, Latxunbe-berriko kirol pista libre geldituko da. Gainera, azoka ospatzen den bitartean, Osasun zentrorako sarrera pareko trafikoa moztuko da, Marielu-teraino, hain zuzen.

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**JASOTA**

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizenak, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

## STOP 5G

Bioetika giza duintasunaren oinarri izanik, esan digu zientziak giza ondasunaren zerbitzura egon behar duela osasuna zaintzeko, eta ez gizakiak, txertoekin egiten duten bezala, zientziaren esperimenterako eta 5G txertoaren kontrol politikoagatik eta enpresa-korporazioen interesagatik.

Gaur, gizateriaren zatirik handienak aurrerabidearen "normaltasunera" itzultzea espero du, eta gutxiengo arraro batek iraganari etorkizunaren eredu gisa ez begiratzearen alde egin du.

Ezkerreko alderdiak besaulki-patioan iltzatu dira, eta horrek ahalegin eta konpromiso handiagoa hartzera behartzen

ditu publikoarekiko konpromisoa hartzen ez dugunak eta horretaz bizi ez garenak. Hala, Iñigo Urkullu lehendakariari galde diezaiokegu ea, agerraldi berri baten aurrean eta konfinamendura deituz gero, onartuko ote duen Sanchez jaunak, "Covid aroa" programari jarraikiz, global gisa dekretatzea?... edo hautazkoa, Osakidetzan paziente bakoitzarentzat dagoen historial medikoaren arabera.

Noiz egingo ditu galdera horiek oposizioak eta ezker abertzaleak Eusko Legebiltzarrean? Zeri zor zaio elkarlaneko isiltasun susmagarri hori? Hauteskundeetatik ateratzen dena ateratzen dela, haitzuloetako auge politikoa bakarra izango dugu,

eta dozena erdi buru mokoka, itxuraz, ezer aldatzeko inolako interesik gabe... inoren aldetik... gaur egun ez dago beste inorengandik.

Horrela, gaur egun, herritarren ekintzarik eraginkorrena alderdi politikoen fartsa demokratiko hori agerian uzten saiatzea da. Hurbilen dagoen erakundetik osasunerako garrantzitsuak diren gaiekin konprometitzea, harik eta Hernani udalerrri "ez 5G" izendatzea lortu arte, eskaera alkateari udal Erregistrotik bidalita, eta horren kopia bat oposizio zinegotzietatik, dagoeneko jasota dagoen bezala... gutxienez bat.

**Iulen Lizaso Aldalur**

### VALERIANO PELAZ GARCIA

(VALE)

Joan zara,  
gu ere joango gara  
baina hemen gauden bitartean  
gurekin izango zara

**ZURE LAGUNAK: PEDRO- M.LUZ,  
LAURI-LOLI**

Hernanin, 2020ko uztailaren 15ean



### VALERIANO PELAZ GARCIA

Elkartearen alde emandako  
guztiagatik ez zaitugu ahaztuko.  
Lepoan hartu ta segi aurrera

**HERNANI CLUB RUGBY ELKARTEA**

Hernanin, 2020ko uztailaren 15ean



## IRAGARKI MERKEAK

**Neska euskalduna haurrak zaindu eta klase partikularrak emateko prest, deitu: 618119781**  
**Pertsona bat behar da asteburuetan prentsa-kioskoan lan egiteko.** Euskara jakitea ezinbestekoa. **Deitu: 688 69 40 34**

**Emakumea lan bila:** edozein lan egiteko prest. **Deitu: 609 209 161**

**Langile bat behar da URGENTEA-SOLDATZAILE ETA OBRARAKO MUNTATZALEA,** esperientziarekin, gidatzeko karneta eta prebentzio kursoak baloratuko dira. **Interesatuak deitu 943 690 643**  
**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**